

HIZKUNTZEN BIZITZA ETA HERIOTZA

Carme Junyent

Bartzelonako Unibertsitateko Filologia irakaslea

Itzultzailea: Joseba Ossa

HERIOTZA. ORDEZKAPENA

Ordezkapen prozesu baten «salaketarik» zaharrenetako bat Nehemiasen liburuan aurki dezakegu:

«Judu batzuk emakume axdodtar, amondar eta moabdarrekin ezkondu zirela ere jakin nuen egun haietan. Haien seme-alabetatik erdiak-edo axdoderaz mintzatzen ziren; beste batzuk bateko edo besteko herri artotzen hizkeraz, baina inork ere ez zekien judu-hizkuntza».

Nh. 13:23-24

Nehemias ez zen, ordea, egoera hori salatzeraz mugatu, eta «hizkuntz politika» egokia aplikatu zuen: «Nik aurpegira bota nien hori eta madarikatu ere egin nituen; jo ere egin nituen batzuk eta ileak atera nizkien; gero, herri haietako jendearekin ez zirela ezkonduko zin eragin nien Jainkoaren izenean» Nh. 13:25. Eta «Beraz, garbitu nituen arrotz-kutsu oro, eta apaiz eta lebitarren eginkizunak zehazten zituzten arauak ezarri nituen» Nh.13:30. Nehemiasen zeloa ez zen hain zuzen interesik gabea: «Oi ene Jainko, gogora zaitetz nitaz, eta har nazazu onez!» Nh. 13:31. Baina bere eragina izan zuen, zeren hebraierak hizkuntza bizia izaten jarraitzen baitu —nahiz eta historian zehar gora-behera ugari izan—, eta moabiera, berriz, desagertuta dago, hizkuntza horretan inskripzio bat besterik ez baitugu. Baina Nehemiasen «Hizkuntz politika» alde batera utzita, Bibliako testu honek oso garbi uzten du zein den ordezkapena eragiten duen prozedura: belaunal-

dien arteko transmisioa. Guraso elebidunek lehenik hizkuntza errezesi-boa abandonatu egiten dute seme-alabekin komunikatzeko orduan eta, beraz, gero eta gutxiago dira hizkuntza horretan mintzatzen diren umeak. Belaunaldi gutxi batzuen ondoren hizkuntza erabat desagertu daiteke.

Ordezkapen prozesua oso azkarra izan daiteke eta lau belaunalditan burutu. Lehen belaunaldia elebiduna izan daiteke hizkuntza errezesiboan, baina bigarren belaunaldiak, nahiz eta hizkuntza errezesiboaren jatorrizko hitzuna izan, hizkuntza menperatzailea ikasten du. Belaunaldi elebidun honek gaitasun handiagoa du hizkuntz errezesiboan menperatzailean baino, baina zenbait arrazoi direla-eta (prestigioa, mobilitate soziala lortzeko nahia, estatus aldaketa eta abar) ez dio bere ama-hizkuntza transmititzen hirugarren belaunaldiari. Hirugarren belaunaldia ere elebiduna da, baina gaitasun handiagoa du hizkuntza menperatzailean, hizkuntz errezesiboaren ezagumendua batez ere pasiboa delako eta lehen eta bigarren belaunaldietako kideen arteko elkarrizketen bidez eskuratua. Lau garren belaunaldia jadanik elebakarra izan daiteke hizkuntza menperatzailean.

Gakoa, beraz, bigarren belaunaldian dago, horrek ordezkapenaren aldeko aukera egiten baitu. Aukera horren arrazoiak ez daude garbi, ezta askoz gutxiago ere. Kloss-ek¹ oharrarazten duen bezala, ezin dugu generalizatorik egin behean aipatzen diren faktore hauen ondorioz eratoritzen diren ordezkapen edo mantentzeari buruz:

- a) Ama-hizkuntzaren gabezia edo presentzia hezkuntzan.
- b) Hitzunen kopurua.
- d) Taldearen barne homogenotasuna.
- e) Gehiengoaren jarrera (erasokorra edo positiboa izan daiteke) gutxiengoarekiko.

Fishman-ek ere garbi erakusten du ordezkapenari buruzko zenbait generalizazio kuestionagarriak direla, esate baterako:

- a) Hizkuntzaren mantenimenduak taldearen kide izatea edo taldearekiko leialtasuna adierazten duela.
- b) Hiri inguruetakoko biztanleek joera handiagoa dutela ordezkapenerako herri txikietakoko eta nekazal ingurukoetakoekin baino.
- d) Prestigiorik altuena duen hizkuntzak bestea (prestigio txikia duena) desplazatu egiten duela.

Beraz, ezin bada generalizatorik egin, are zailagoa izango da aurreikuspenak egitea. Gehienez jota, hizkuntz desagertu prozesu batzuetan zereginek izan duten zenbait faktore identifikatu ditzakegu. Faktore horiek norbanakoen jarrera linguistikoa alda dezakete, eta azken finean norbanakoak dira hizkuntzaz aldatzea erabakitzen dutenak. Gogoan izanik munduan dauden hizkuntzen kopurua koerlatiboa dela talde soziokulturalen kopuruarekin, garbi dirudi edozein kulturarteko kontaktuk ordezkapen

1) Kloss, H., Fishman, J.A.k aipatua (1971).

«Ordezkapen prozesua eman dadin, elebitasuna nahitaez bete beharreko baldintza da. Horrek ez du esan nahi, ordea, elebitasuna nahikoa denik hizkuntzetako baten ordezkapena gerta dadin. Beste faktoreak ere behar dira horretarako»

pen prozesu bat eragin dezakeela. Zenbait talde desberdinek erlijio berbera baldin badute, eskola-sistema berbera badute, telebista programa berberak ikusten badituzte eta beren arteko bidaiak egiten errazak badira, ziurraski hizkuntz aniztasuna murriztu egingo da. Egia da kontaktu kulturalak berak bakarrik ez duela ordezkapenik eragiten, baina hiztunek beren hizkuntzarekiko duten jarrera alda dezakete azken horiek komunitate indartsuago batekin harremanetan jartzen direnean, hau da, komunitate garatuagoa, diruz aberatsagoa eta, batez ere, kulturaren alde-tik agresiboagoa den komunitatearekin.

Hori bai, gauza bat dago garbi: ordezkapen prozesua eman dadin, elebitasuna nahitaez bete beharreko baldintza da. Horrek ez du esan nahi, ordea, elebitasuna nahikoa denik hizkuntzetako baten ordezkapena gerta dadin. Beste faktoreak ere behar dira horretarako. Kontua da beste arrazoi horiek identifikatu egin behar direla eta orain arte eskuratu ditugun ezagumenduekin zaila da desagertzen prozesuetan aurkitzen diren zenbait faktore ordezkapenaren arrazoi diren ala ez jakitea. Faktore horien artean hauek egon daitezke: hizkuntza beraren murrizpena, hizkuntzaren lurraldearen murrizpena, funtzioen eta estatusaren galera eta abar. Baina ordezkapenaren arrazoitzat har daitezke, hain zuzen ere, fenomeno horien arrazoiak, besteak beste zenbait aldaketa demografiko, eta prestigioarekin zerikusirik duten beste zenbait gai, esate baterako, modernizazioa, eskolaratze prozesua, industrializazioa eta abar. Adibide gisa besterik ez bada ere, Dorian-en arabera Sutherland-eko konterrian ekialdeko gaelikoaren ia erabateko desagertpena eraman duten arrazoiak ekar ditzakegu gogora:

Gaelikoa baztertuta —eta batzuetan ezabatuta— izan da Eskoziako hezkuntzan eta bizitza publikoan mendeetan zehar. Sutherlandeko konterriko gaelikoaren hizkuntz komunitateari eusten zion oinarri ekonomikoa desagertu egin zen bertako arrantza-industriaren desagertpenarekin batera, bi Mundu-Gerra handien arteko urteetan, eta ekialdeko arrantzale gaelikoen zati bat bizirik iraunarazten lagundu zuten segregazio erresidentziala eta endogamia ahultzen hasi ziren oinarri ekonomikoaren desagertpenaren ondorioz. Hizkuntza ingelesak —bai herri mailan eta bai nazio mailan ere elitearen hizkuntza izanik— ia instituzio nazional guztien laguntza dauka herrietako bizitzan; legea, hezkuntza, gobernu, armada eta (batez ere) komunikabideak bere alde ditu; dialekto gaeliko lokalak, berriz, ez du horietako inoren laguntzarik. Bi hizkuntza horien arteko borroka oso desorekatua izan da belaunaldi askotan zehar, alde batetik ingelesak onespren maila altua eta gobernuaren laguntza boteretsua duelako eta bestetik ekialdeko gaelikoak onspen murriztua duelako, inolako laguntza instituzionalik gabe. Arrantzaleak bere kasa eta oinarri ekonomiko egoki batekin bizi ziren bitartean beren hizkuntza bizirik mantentzeko gai ziren, nahiz eta eskolan ingelesez egin eta talde ingelesdunekin zituzten harreman komertzial ugari ei esker ingelesa ere erraztasunez hitz egiten zuten. Arrantzaren desagertpenarekin eta oinarri ekonomiko independenteak ahalbidetzen zituen ezkontza eta adiskidetasun egituren

desagerpenarekin egoera azkar aldatu zen eta ingelesa nagusitu egin zen ekialdeko kostaldeko gaelikoaren azken gunehonetan.

2) Denison, N., op cit., 21. or.

Aurrerago ikusiko dugun bezala honelako faktoreak maiz desagerpen prozesuei lotuta agertzen dira; Eskoziatik oso urrun, Tailandian, «ugong» izeneko beste hizkuntza batek antzeko prozesua izan du: independentzia ekonomikoaren galera, taldez kanpoko kontaktuak, exogamia eta prestigioa duen kulturaren presioa (kasu honetan «tai» kulturarena). Eta hauek bezalako kasu gehiago ere aurki ditzakegu munduan zehar. Ordezkapena fenomeno sozial soil gisa aztertu baino lehen, ordea, ikus dezagun zein den norbanakoaren eginkizuna gai honetan.

NORBANAKOA

Nahiz eta ordezkapena fenomeno soziala izan, galdetu beharra dago zein den norbanakoak desagerpen prozesu batean duen eginkizuna, zeren azken finean bere hizkuntza mintzatzeari uzteko erabakia —edo ez transmititzea— berea baita; gainera, ezin dugu ahaztu —Weinreich-ek esaten duen bezala— bi hizkuntzen arteko «kontaktu puntua» norbanakoa dela. Hizkuntza baten «azken hitzunez» hitz egin ahal izateak —gaitasun handikoak edo ertainekoak izan— berez erakusten digu faktore indibidualak badirela hizkuntz jarrera determinatzeko orduan, bai ordezkapenerantz, bai mantenimendurantz ere.

Denison-ek idazten duen bezala, heriotza (edo bere terminologiaren arabera, suizidioa) honela hasten da: «*Une batean guraso eleanitzek ez dute beharrezkotzat hartzen —edo beraien iritziz ez du merezi— etorkizunari begira prestigio txikiko hizkuntz barietate batean komunikatzea, eta seme-alabek ez daukate motibaziorik hizkuntza horretan gaitasuna eskuratzeko, hizkuntza horrek ez baitu ondorengoak bezalako konnotazio positiborik: gaztetasuna, modernotasuna, teknika, arrakasta materiala eta hezkuntza*²».

Egia da puntu honetara iritsi baino lehen alde aurretik hizkuntzalari-tzaz kanpoko faktore askoren partehartzea behar dela, eta kontuan hartu behar dela, baita ere, gurasoek seme-alabei beren hizkuntza ez transmititzeko motibazioan sentimendu negatibo bat badela, hau da, ama-hizkuntza oztopo izan daitekeela, eta horrek garrantzia handiagoa du «etorkizunari begira beharrezkoa izatea ala ez» baino. Talde handiago batean integratzeko nahi horretan (edo beste hitzetan esanda, beste taldeko kideak bezalako izateko nahian) kontuan hartu behar den beste faktore bat zera da: nahi horrek alde aurretik beste taldearen balio-sistema eskuratzeko inplikatzeko edo eskatzen duela. Hori kontuan izanik agian errazagoa izango da ulertzea zergatik talde sozial jakin batzuek indartsuago jokatzen duten ordezkapenaren alde beste batzuek baino. Jokabide mota horietan garbi geratzen da, bederen, presio sozialak eragin erabakiorra duela norbanakoaren aukeran.

Kontuan izan behar da hizkuntza batek prestigioa galtzen duenean hizkuntza horren hitzunez ere prestigioa galtzen dutela, eta hitzunik inda-

«Tailandian, «ugong» izeneko beste hizkuntza batek antzeko prozesua izan du: independentzia ekonomikoaren galera, taldez kanpoko kontaktuak, exogamia eta prestigioa duen kulturaren presioa»

rrean dauden arau sozialetara egokitzen saiatzen direnean, nola edo hala, beren identitatea ukatu edo aldatu egin behar dutela. Bizilekua edo estatus soziala aldatzeak hizkuntza ere aldatzea eragin dezake, baina hizkuntza aldatzeak ezin ditu zenbait aldaketa ezinezko eragin, esate baterako jatorri etnikoa edo sexua aldatzea. Hizkuntza ofizial gisa atzerriko hizkuntzaren bat hartu duten estatu eleanitzetan eliteek atzerriko hizkuntza hori erabiltzen dute bai talde-barneko harremanetan, bai belaunaldien arteko transmisioan eta bai estatusaren sinbolo gisa ere.

Ordezkapen prozesu ezberdinetan zenbait konstante ikusi ahal izan dira, eta beraz, baliagarriak edo lagungarriak izan daitezke ordezkapenak hartuko duen norabideari buruzko aurreikuspenak egiteko orduan:

A) ADINA

Adina da azterketak egiterakoan kontuan hartu beharreko elementurik garrantzitsuenetako bat, esate baterako erroldako datuak aztertzerakoan. Hitzunen kopuruaren murrizketa belaunaldi talde desberdinekin koerlazioa daitekeenez, hortxe dugu ordezkapen prozesuaren adierazleetako bat. Baina interesatzen zaiguna hizkuntz jarreraren adinak duen eragina aztertzea da. Egia da ezin dela generalizatu hizkuntzen arteko kontaktu egoeren inguruan, eta batez ere hizkuntzak mehatxatuta daudenean, baina zenbat eta txikiagoa izan adina hainbat eta garrantzi handiagoa ematen zaie hizkuntzei; hau da, normalean mehatxupearan dagoen hizkuntzarako leialtasuna normalagoa da hitzun helduen artean, eta adina jaisten den arabera oreka handiagoa dago bien artean, hizkuntza menperatzailearen lehentasunera iritsi arte, noski. Horrek esan nahi du gazteen artean gehiago erabiltzen dela hizkuntza menperatzailea, hau da, hizkuntza erresibo gutxiago erabiltzen dela eta beraz, indarra galtzen joaten dela.

B) SEXUA

Sexua komunitate bakoitzean adinarekin koerlazioan behar den aldagai da, zeren emakumeak lan munduan integratzearekin batera aldaketa nabarmenak ematen dira hizkuntz jarreraren inguruan.

Betidanik emakumeek lehentasunezko eginkizuna izan dute hizkuntzaren transmisioan, beraiek baitira umeekin denbora gehien ematen dutenak hizkuntz eskurapenaren garaian. Eta transmisore izateaz gain kontserbatzaile direla ere esan dezakegu. Maiz ordezkapen prozesua jasan duten komunitateetan azken hitzunak emakumezkoak dira. «Koaia» hizkuntza amerindiarraren azken hitzunak, adibidez, emakumezkoak dira eta gainera bakar-bakarrik bizi dira. Afrikan ere ugariak dira azken hitzunenak diren emakumeak, esate baterako «omo-urle» taldekoak Etiopian. Hala ere, alderantzizko kasuak ere aurki daitezke: Botswana-ko «kalanga» taldean, adibidez, beren hizkuntza galtzen ari dira «tswana» hizkuntzaren mesederako, eta ordezkapenaren aurrean erresistentziarik handiena egiten ari direnak gizonezkoak dira. Egia da emakumea etxean geratzen direnean normalean kontserbatzailea dela eta ama-hizkuntza biziraunaraz-

teaz arduratzen dela, baina egia da baita ere, ordezkapenari buruzko ikerketa gehienetan garbi geratzen dela lanean hasten denean bera dela hizkuntza errezesiboa uzten lehena. Dressler eta Wodak³ ikerlariek fenomeno hori azaltzeko konbinazio bat eskaintzen dute, behe mailako bi estatusen konbinazioa (hizkuntz gutxiengo bateko kide izatearena, eta emakume izateagatik egokitzen zaiena). Antza denez, emakumeak askoz gehiago kezkatzen dira mobilitate sozialaz —batez ere seme-alabenaz— gizonetako baino, batik bat arrazoi honengatik: hizkuntza menperatzailea mintzatzea eskuratu nahi den estatusaren baldintza eta sinboloa delako. Badirudi horixe bera gertatzen dela Schlieben-Langek Proventzan aztertutako kasuan ere: «Gizonezkoak oraindik proventzaleraz mintzo dira lanean, azokan, boloetan jokatzekoan eta euren arteko elkarrizketetan, kafetegietan. Gizonak proventzaleraz hitz egiten saiatzen dira senideekin, batez ere gurasoekin, baina baita emazteekin ere. Zaila da ia erabat proventzal elebkar diren gizonezkoak aurkitzea. Emakumeek, bestalde, normalean ukatu egiten dute inoiz proventzaleraz mintzatzeko direnik ere. Batzuetan ikasi edo entzun egin dutenik ere ukatu egiten dute. Gizonezkoak etxeko elkarrizketetan proventzaleraz sartzeko saiatzen badira, emakumezkoek debekatu egiten diete. Oso kezkatuta daude, seme-alabek frantsesa ondo ikas dezaten nahi dutelako, eskolara ondo prestatuta joan daitezen, han proventzaleraz hitz egitea zigortuta dagoelako».

Emakumeak lan munduan sartzea —ezkontza exogamikoekin batera— izan da Estatu Batuetako hizkuntza amerindiarren desagertzearen arrazoi nagusietako bat. Kasu honetan ere amen kezka eginkizun garrantzitsua du, seme-alaben mobilitate sozialaz kezkatuta daudelako, eta aitona-amonon eskuan geratzen da beren hizkuntza transmititzearen eginkizuna.

Hala ere, alderantzizkoa ere gerta daiteke, hau da, gizonezkoak izatea etxean hizkuntza errezesiboa baztertzen dutenak. Gunther-ek azaltzen duen bezala John Rhys 1886-1893 urteen artean Manx irlara bisitan joan zenean zera ikusi zuen: «Jende gutxi hitz egiten zuen «manx» hizkuntza; hainbat arrantzale «harrapatu» zituen beren artean hizkuntza horretan mintzatzeko, nahiz eta ez zuten inoiz manxera etxean erabiliko emazte eta seme-alabekin⁴».

Esan beharrik ez dago hizkuntza bat eremu bakar batean erabiltzen denean funtzioen murrizpena bere mugara iritsi dela, eta oso zaila dela bizirik irautea. Eta kasu honetan bezala nahiko konnotazio klandestinoak dituenen, berriz, estatusaren galera erabatekoa da. Hala ere, faktore horiei buruz aurrerago arituko gara.

D) GIZARTE MAILA

Norbanakoaren gizarte maila edo klase soziala zein den finkatzea oso lan konplexua izan daiteke, bertan parte hartzen duten aldagaien interpretazioa neurri handi batean behatzailearen menpe dagoelako. Adibide gisa Labov eta Trudgill-ek norbanakoak zein gizarte mailakoak diren zehazte-

3) Dressler, W & Wodak-Leodolter, R. (1977): "Language preservation and language death in Brittany" *Linguistics*, 191.

4) Gunther, W. (1990): "Language conservancy or: can the anciently established British Minority languages survive?," in Gorter, D. et al. (ed.), 60. or.

«Kontuan izan behar da hizkuntza batek prestigioa galtzen duenean hizkuntz horren hiztunek ere prestigioa galtzen dutela, eta hiztunak indarrean dauden arau sozialetara egokitzen saiatzen direnean, nola edo hala, beren identitatea ukatu edo aldatu egin behar dutela»

ko orduan erabilitako irizpideak aipa ditzakegu. Labov-ek hiru irizpide hauek bakarrik hartzen ditu kontuan: hezkuntza, lana eta soldata. Trudgill-ek, ordea, hiru horietaz gain etxebizitza mota, bizilekua eta aitaren lana ere hartzen ditu aldagai gisa.

Behin gizarte klaseak ezarri eta gero, koerlazio bat ezarri daiteke horien eta hizkuntz portaera ezberdinen artean. Oro har, desagerpen prozesuen azterketetan ikusten da klaserik baxuenek gehiago erabiltzen dutela euren hizkuntza errezesiboa maila altukoek baino, eta mailarik apalenetan sarrigotan transmititzen zaiela hizkuntza errezesiboa seme-alabei. Fenomeno hori hizkuntza errezesiboei maiz atxikitzen zaien estatus maila baxuarekin koerlazioa daiteke. Gogoan izan behar da mobilitate soziala askotan hizkuntz aldaketarekin lotuta doala —baita hizkuntza berberaren aldaera besterik ez bada ere— zeren hizkuntza ere estatusaren sinboloa baita. Fenomeno horrek esplikatzen du, adibidez, zergatik utzi duten albo batera beren hizkuntza herrialde afrikar gehienetako klase zuzendarietako batzuk, edo zergatik hartu zuen gaztelania etxeko hizkuntzat burgesia katalanaren zati batek gerra zibilaren ondoren, eta abar.

E) JATORRIA

Nahiz eta Fishman-ek dioen bezala hiri inguruetakoko biztanleek ordezkapenerako joera handiagoa izatea kuestionagarria izan, jatorriaren alda-gaia (nekazal giroko jatorria/hiri ingurukoa) oso garrantzitsua da ordezkapen prozesuetan norbanakoaren portaera aztertzerakoan. Gizartearen urbanizatzeko hazkorra maiz hizkuntza mehatxatuen errezesioa eragiten du, eta hiri inguruetakoko joateak gutxienez funtzio-aldaketak eragiten ditu hizkuntzaren baitan, eta horrek erraz eramaten du ordezkapenera. Egia da, baita ere, hizkuntzak maiz nekazal inguruetan hiltzen direla han denbora luzeagoz irauten dutelako. Islandierak danieraren aurrean bizirik irauteko faktorerik garrantzitsuenetako bat askoren iritziz zera da: han ez zeudela danifikazioaren aldeko eraginik izan zezaketen hirigunerik; beste aldetik «saami» edo laponieraren funtzio murrizpena eta laponiarren hiritartzea elkarri loturik joan dira. Beraz, norbanakoak aukera gehiago ditu bere hizkuntzari eusteko baldin eta nekazal giroan bizi bada.

Kondizionamendu horiek alde batera utzita (izan ere norbanakoari inposatutakoak dira) pertsona bakoitzaren erabakia geratzen da, hau da, ama-hizkuntzari eustea edo ordezkapenari bidea uztea. Gai honen inguruan egin diren hurbilketarik interesgarrienetako bat Giles eta Johnson-ek identitate etnolinguistikokoaren teoriaren esparruan egindakoa da.

Egile hauek saiatu dira argitzen noiz eta zergatik mantentzen edo sakrifikatzen duten talde jakin bateko kideek beren identitate etnolinguistikoa beste talde bateko hiztunekin duten elkarrekintzan, bai epe laburrera, eta bai beren hizkuntza ordezkatu edo mantendu erabakitzeko orduan ere. Giles eta Johnson-en arabera:

Mundu soziala kategorizatu egiten dugu eta, beraz, talde desberdinetako kideetat hartzen ditugu geure buruak. Geure buruaz taldeko kide gisa

dugun ezagumendu hau gure identitate sozial gisa definitzen da, eta negatiboa edo positiboa izan daiteke, gure taldeko kideen egoera beste taldekoekin konparatzean ateratzen den emaitzaren arabera. Normalean esaten da identitate positiboa bilatzen saiatzen garela beste taldeekiko konparazioetan geure alderako emaitzak emango dituzten dimentsioak bilatuz; beste hitzetan esateko, «distintzio psikologiko» positiboa lortzen saiatzen gara eta hizkuntza jokoan sartzen da talde batek bere hizkuntza edo hizkuntz aldaera beste taldeekiko konparazio dimentsio gisa ikusten duenean⁵.

Hizkuntza baten edo bestearen arteko aukera egiterakoan beste faktore batzuek ere izan dezakete eraginik, esate baterako komunikazioan eraginkortasuna izateko gogoia edo estatusa azpimarratzeko nahia. Giles eta Johnson-ek aldagai batzuk identifikatzen dituzte norbanakoari alde batera edo bestera eragiten dietenak, hizkuntzaren biziraupenaren alde edo axolagabetasun edo suizidio linguistikorantz.

Zaila da egile hauen proposamena laburbiltzea aldi berean proposamen hori oker ulertu eta erabili gabe, zeren beraiek sartzen dituzten aldagaie-tatik ondoriozta baitaiteke norbanako batek ziurrenik jarraituko duen portaera linguistikoa. Autore horien arabera beste taldeetako kideekin hitz egiten dugunean gure ezaugarri etnolinguistikokoak azpimarratu edo ahularazten diguten faktoreak prozesu psikologiko sozial amankomunak dira. Aldagairik esanguratsuenak hauexek dira:

- Taldearen bizitasunaren (bitalitatearen) pertzepzioa.
- Taldearen mugen pertzepzioa.
- Talde desberdinetako kide izatea.

Taldearen bizitasuna, bestalde, hainbat faktoreren menpe dago:

- Estatus faktoreak (prestigio ekonomikoa, politikoa eta linguistikoa).
- Faktore demografikoak (hiztun kopurua, hazkuntza demografikoaren indizea, kontzentrazio demografikoa).
- Laguntza instituzionala.

Gogoan izan behar da norbanakoen ekintzek menpekotasun handiagoa dutela pertzepzio subjektiboarekiko taldearen bizitasun objektiboarekiko baino.

Taldearen mugen pertzepzioari dagokionez, mugak garbiak badira taldeko kide izatea esanguratsua bihurtzen da. Horrek argitu egiten du bai kategorizazio etnikoa eta bai taldeen arteko topaketetan hartu beharreko portaera.

Talde desberdinetako kide izateak eragin garbia du lotura etnolinguistikoa: beren buruak aldi berean talde askotako kide gisa ikusten dutenek identitate sozial lainoagoa dute beren buruak talde bat edo biko kide gisa ikusten dutenek baino.

5) Giles, H eta Johnson, P., ib., 70-71 orr.

**«Maiz ordezkapen
prozesua jasan duten
komunitateetan azken
hiztunak
emakumezkoak dira.
«Koaia» hizkuntza
amerindiarraren azken
hiztunak, adibidez,
emakumezkoak dira eta
gainera bakar-bakarrik
bizi dira»**

Azkenik jokoan sartzen den beste aldagaietako bat Giles eta Jonhson-ek «konparazio sozial inseguru» deitzen dutena da, eta horrek zerikusi handia du taldearen estatusa injustu eta aldagarri gisa ikustearekin, potentzialki bederen. Aldagai horiek kontuan izanik, aipatutako autoreen iritziz ondorio hauek erator daitezke:

BIZIRAUPENA

Talde bateko kideek beren hizkuntza kontserbatzeko joera kasu hauetan izaten dute:

- a) Beren talde etnikoarekin identifikazio maila altua dutenean.
- b) Konparazio sozial inseguruak egiten dituztenean kanpoko taldeekin.
- d) Kategoría sozial ez-etniko gutxirekin identifikatzen direnean beren arau eta balioak ez direlako bateragarriak talde etnikoaren arau eta balioekin, taldeetatik eratorritako identitate sozialak nola edo hala desegokitzat jotzen dituztenean eta talde etnikoaren barruan duten estatusa altuagotzat jotzen dutenean beste kategoría sozialen barruan dituztenak baino.
- e) Taldearen mugak sendo eta itxita ikusten dituztenean eta aldi berean:
- f) Beren talde etnikoak bizitasun gutxi duela ikusten dutenean.

Edo

- e) Taldearen mugak hauskorak eta irekiak ikusten dituztenean eta aldi berean:
- f) Beren talde etnikoak bizitasun handia duela ikusten dutenean.

AXOLAGABETASUNA

Talde bateko kideek beren hizkuntza kontserbatzeko joera txikiagoa izaten dute kasu hauetan:

- a) Talde etnikoarekiko duten identifikazio maila ahula denean.
- b) Konparazio sozial inseguruak egiten dituztenean kanpoko taldeekin.
- d) Kategoría sozial ez-etniko gutxirekin identifikatzen direnean beren arau eta balioak ez direlako bateragarriak talde etnikoaren arau eta balioekin, taldeetatik eratorritako identitate sozialak nola edo hala desegokitzat jotzen dituztenean eta talde etnikoaren barruan duten estatusa altuagotzat jotzen dutenean beste kategoría sozialen barruan dituztenak baino.
- e) Taldearen mugak sendo eta itxita ikusten dituztenean.
- f) Beren talde etnikoak bizitasun handia duela ikusten dutenean.

SUIZIDIOA

Talde bateko kideek beren hizkuntza abandonatzeko joera handiagoa izaten dute kasu hauetan:

- a) Talde etnikoarekiko duten identifikazio maila ertaina edo ahula denean.

b) Konparazio sozial seguruak egiten dituztenean kanpoko taldeekin.

d) Kategoría sozial ez-etniko batzuekin identifikatzen direnean beren arau eta balioak ez direlako bateragarriak talde etnikoaren arau eta balioekin, taldeetatik eratorritako identitate sozialak nola edo hala egokitzen jotzen dituztenean eta talde etnikoaren barruan duten estatusa baxuagotzat jotzen dutenean beste kategoría sozialen barruan dituztenak baino.

e) Taldearen mugak hauskorak eta irekiak ikusten dituztenean.

f) Beren talde etnikoak bizitasun txikia duela ikusten dutenean.

Agian ondoriorik garbiena —aldagai hauek unibertsalak direla suposatuz— zera litzateke: norbanakoak hizkuntzarekiko duen jarrera neurri handi batean taldearekiko identifikazioaren eta mugen pertzepzioaren eta bizitasunaren menpe badaude, desagerpen prozesu jaio berriak berbideratzeko modurik egokiena faktore horiek lantzea litzatekeela. Kontuan izan beharreko beste gaia beste zenbait taldeko kide izatetik sor daitekeen gatazka litzateke. Ezin dugu ahaztu taldeen arteko harremanak negatiboak ez badira, eta batez ere identitatearen dimentsio desberdinetakoak badira, ez direla bateraezin gisa ikusi behar, bateragarri gisa baizik. Dena den, norbanakoaren mekanismo psikologikoak (bai hizkuntzaren kontserbazioaren kasuan eta bai ordezkapenarenean) hain dira ezezagunak eta azken finean hain «planifikaezinak» (agian horregatik da hain zaila ordezkapen prozesuak iraultzea) ezen beharbada hobe genukeen norbanakoa bakean utzi eta behingoz kultura guztiekiko errespetua «planifikatzea» pertsona bakoitza zoriontsu izan dadin bere hizkuntza erabiliz inolako identitate, marjinazio eta erantzukizun arazorik gabe bere hizkuntzaren eta kulturaren biziraupen lanetan (baita nork bere burua gorrotatu gabe ere, mesedez!).

ELEBITASUNA

Gogoan izanik bai hizkuntza baten mantenimendua eta bai ordezkapena ere hautaketa baten bi aukera direla, garbi dago bi fenomeno horiek eman daitezen hautaketa hori egiteko aukera eduki behar dela. Elebakar batek ezingo luke inoiz beste hizkuntzarik aukeratu eta horren arrazoa oso sinplea da: ez duela aukerarik. Dressler-ek honela dio: «*Hizkuntza baten desagerpenak —normalean ulertzen den bezala— bi elementu eskatzen ditu: elebitasuna (edo eleaniztasuna), eta hizkuntz ordezkapena, hau da, hizkuntza errezesiboak lekua uztea hizkuntza menperatzaileari; hizkuntz ordezkapenak bi fase ditu: elebitasun egongaitz batetik elebakartasun finalera doan trantsizio mailakatua (hizkuntz erabileraren eremu guztietan), eta trantsizio horren emaitza, hau da, hizkuntza errezesiboaren desagerpena edo iraungipena⁶».*

Elebitasuna, beraz, nahitaezko baldintza da ordezkapen prozesua eman dadin. Nahitaezkoa esan dugu, baina... nahikoa ote da?

Ugariak dira denbora luzez egoera horretan iraun duten komunitate elebidun edo eleaniztunen adibideak. Horrek pentsarazten digu komunitate

6) Dressler, W.U. (1987): «La mort de les llengües» *Limits 3*, Empúries ed., Barzelona, 87 orr.

**«Esan beharrik ez dago
hizkuntza bat eremu
bakar batean erabiltzen
denean funtzioen
murrizpena bere mugara
iritsi dela, eta oso zaila
dela bizirik irautea»**

bat elebidun izateak ez duela esan nahi derrigorrez ordezkapen prozesua jasan behar duenik. Elebitasunak, beraz, beste arrazoiak behar ditu prozesu hori eman dadin, hau da, elebitasun maila aldatuko duten arrazoiak. Baina guk ez dakigu zeintzuk diren arrazoi horiek eta zer eragin duten. Guk egin dezakegun gauza bakarra zera da: hizkuntza baten desagerpenean parte hartzen duten faktoreak identifikatzea eta beste desagerpen prozesuetan ematen direnak zeintzuk diren aztertzea, baina aldi berean kontra-adibideak ere baditugu eta horiek ez digute uzten ziurtatzen faktore konkurrente horiek direnik desagerpenaren eragileak. Azken finean zergatik aukeratu ote du norbanako elebidun batek bere hizkuntza ez transmititzea seme-alabei? Nahikoa al da modernizazioa, industrializazioa, goi mailako ikasketak eta abar —oso erakargarriak izan arren— nork bere hizkuntzari uko egiteko? Esan dugun bezala, ordezkapenari dagokionez oso belaunaldi gutxitan gerta daiteke. Beraz, zaila da «arrazoi» bat determinatzea arrazoi horrek ez badu efektu berbera lortzen beste komunitate batean.

Garbi dago ordezkapena oso fenomeno konplexua dela eta prozesu horretan faktore askok hartzen dutela parte. Beraz, oso zaila da aurreikuspenak egitea. Hala ere, edozein komunitate elebidunek has dezake ordezkapen prozesua eta itzulerarik gabeko puntu batera iritsi, eta prozesu hori hasten denean zenbait sintoma identifika daitezke. Beraz, ondo legoke sintoma horiek alarma-seinale gisa hartzea, esate baterako:

a) Hizkuntzen arteko kontaktuetan norabide bakarreko interferentzia maila jakin bat aurkitzen dugunean, lexikoaren mailegu masibotik hasi eta egitura sintaktikoen kalkoraino iritsi arte, arau fonologiko eta morfologikoen eta abarren galeratik pasatuz. Kasu horietan jadanik kezkatzen has gaitzke hizkuntza interferituaren egoeraz.

b) Hizkuntza errezesiboaren lurralde oinarria murrizten eta/edo zatikatzen hasten denean erne ibili behar dugu.

d) Hiri inguruetan ordezkapen prozesua ikusten hasten garenean, berriz, ez da laburra oraindik egin beharreko bidea, ez horixe!

e) Hizkuntza baten funtzioak murrizten direnean (zein hizkuntzatan mintzo naizen familiarekin, adiskideekin, lankideekin edo ikaskideekin, zuzendari jaunarekin edo etxeko neskamearekin, ezezagunekin, eskolazainarekin, dendariarekin, medikuarekin edo epailearekin...), orduan etsairik kaltegarrienarekin borrokatzen ari gara: etsai ikustezina. Nork eragozten digu Gabonetan kantatzeko erabiltzen dugun hizkuntzan gaitasun maila ona daukagula esatea? Eta gaitasuna dugula esaten badugu, nork pentsatuko du gure hizkuntza errezesiboa denik?

f) Hizkuntza baten estatusa ahultzen hasten denean eta batez ere bere hiztunen mailak behera egiten duenean (nork bere hizkuntzan mintzatzea baserritar, probintziano, txobinista, «atzerakoi» eta abar deitzeko arrazoi izaten denean) lehenbailehen kontrapisu baten bila hasi beharko dugu presio horri aurre egiteko, ez badugu nahi komunitate hori bete-betean

eta itsu-itsuan joan dadin hizkuntza menperatzaileak eskaintzen dion mundu zorionsurantz.

Sintoma hauek guztiak (eta beste batzuk) nahitaez sortzen dira hizkuntzen arteko kontaktuan, eta kontaktua estua izanik bata eta bestearen mugak non dauden ez badakigu, oso zaila izango da sendabidea ikustea. Aurkituko al du inork galdera honen erantzuna? Zergatik ikasi dugu zer egin behar den hizkuntza bat ordezkatzeko eta ez dugu oraindik ikasi zer egin behar den hizkuntz ordezkapena geldiarazteko? Eta inork azalduko al digu inoiz nola ikasi dugun hainbeste gizarte jakin bat elebidun bihurtzeari buruz eta ez dakigun ezer elebitasun horri eustearen inguruan?

Esan dugun bezala, zenbait kasutan faktore konkurrente horiek ordezkapenaren arrazoiak direla pentsa dezakegun bezala, beste kasuetan ez dute modu berebean eragin: danierak islandieran eta feroeran zuen eragina azkenean amaitu egin zen (garbi dago, baita ere, bi hizkuntza horiek irletan mintzatzen direla eta hori lagungarria dela). Beste aldetik, hizkuntza baten azken faseetan hiztun gehienek gaizki hitz egiten duten bezala, beste hizkuntza batzuk beren egitura ukitu gabe dutelarik hil dira. Inoiz gertatu izan da, baita ere, estatus altuagoa zuen hizkuntza ordezkatu izatea. Baina faktore konkurrente horiek ordezkapenaren arrazoitzat hartu ezin badira ere, badira sintoma horiek eragin ditzaketen prozedurak eta beraz, arrazoi gisa funtzionatzen dute. Eta ordezkapenaren arrazoi posibleen artean ba dira bi elebitasun mailan eragin zuzena dutenak: mugimendu demografikoak eta prestigioa. Mugimendu demografikoek (mota askotakoak izan daitezke) hitzunen hizkuntz jarrera aldatu gabe eragin dezaketen elementuetako bat dira. Inmigrazio masiboen ondorioz gutxiengo bihurtzen diren gehiengoak, hitzunik sakabanatzen dituzten emigratio masiboak, deportazioak, genozidioak eta abar oso prozedura eraginkorrrak dira ordezkapenaren bidean. Eta biztanlegoa mugitzen ez bada (edo hura mugitzearekin nahikoa ez bada, orduan aldatu behar dena hitzunen jarrera linguistikoa da, eta hemen gogor jokatu behar da prestigioarekin komunitate elebidun bat konturatu dadin aurrera egiteko bide bakarra gehiengoarekin bat egitea dela. Eta hori —esan beharrik ez dago— eskura dauka hizkuntz ordezkapen simple baten bidez.

Bitxia da komunitate elebidunen abantailak goratu besterik egiten ez dituzten horiek ez luketela beren hizkuntza beste edozeinez ordezkatu. Hizkuntza bi edo gehiagotan gaitasuna izatea hizkuntza minorizatuak hitz egiten dutenengandik soilik espero den gauza da, eta hori gutxi balitz ere, elebitasuna janari zoragarri gisa eskaintzen zaie, baina... hara hor!, nola beren hizkuntzan bakarrik «jan» dezaketen askok uko egiten dioten janari zoragarri horri. Elebakartasunerako eskubidea giza eskubidetzat hartu behar da —baita hitzun gutxiko hizkuntzen kasuan ere— eta go-goan izan behar dugu eskubide hori hautsi egiten dela elebitasunaren derrigortasuna (baita beharra ere) inposatzen den bakoitzean.

«Edozein komunitate elebidunek has dezake ordezkapen prozesua eta itzulerarik gabeko puntu batera iritsi, eta prozesu hori hasten denean zenbait sintoma identifika daitezke»